

Euskarak «lobby»-a behar du

**Xabier Mikel
Errekondo**

Zoritxarrez berriro ere itzeleko zaplazteko bi jaso ditu euskarak eta euskaraz bizi eta hezi nahi duten herritarrek. Biak Nafarroan. Esku gorrituak agerian dira, bata Madrileko Gobernuarena eta bestea agintepeko nafar beso juridikoarena. Nafarrek ez ei dute nonbait eskubiderik ETB ikusteko, ez haur eskolan D eredurik jasotzeko apur batek ezik. Zorionez erabaki biek euskara agenda politikoaren erdigunean jarri dute. Eta euskalgintza osoak erantzun egin du. Ikasle, guraso, irakasle, ikastetxe, sindikatu, alderdi zein instituzioek. Antza, bestetxetik egin erasoen aurrean ba da erantzuten. Bestela gertatzen da etxe barrutikakoekin. Alegia, gu-re instituzioetatik aplikatzen den hiz-

kuntza politikarekin. Herri euskaldun eleanitza ez da pauso bakarrean eraikiko, gutxiago hirigune ia denak eremu elebakar erdaldunak direnean. Egungo egoera irauli beharra dago, eta, gustatu ala ez, egoera hori aintzat hartuta eragin. Ez bedi izan ausardia faltagatik, nahiz tonaka erakarmen dosirekin. Beza helburu bera konpartitu euskalgintza osoak.

Euskal politikagintzan euskara ahate txo itsusia da. Baita egun ere. Konplexuz betetakoak dira euskararekiko politikak. Udalerri mailatik hasi eta erkidegoetako gobernuetaraino. Mendoza eta Uriarteren (tx)epelkeriak azken lekukoak.

Jendartearen gehiengoak euskara errespetatu eta maitatzen duenean, he-

rritar euskaldun eleanitzak hezteko helburua konpartitzen dugunean, eskura ditugun gobernuek eta alderdi politikoek konplexuak gainetik astindu, euskara kohesio sozialerako tresnarik eraginkorrena dela barneratu eta estrategia ausartak abian jartzeko gai ez badira, norbaitek behartu egin beharko ditu.

Nago norabide zuzenetik urrutitxo goazela Wert ministro ohiak Generalitateko hizkuntza politikari aurre egiteko Jaurlaritzarena babesten duenean. Politikagintza orok hizkuntza bakarra du ulertzen, *lobby*-ena. Uler beza euskalgintza osoak giltza soilik berak dezakeela izan, erremediorik gabe amildegira baikoaz alderdiak behartzeko adina indar lukeen *lobby*-a osatu artean. •

Gazteen erdiak galdu ditugu

**Maidier Iantzi
Goienetxe**

Bizkaian duela 30 urteko gazte kopuru erdia dagoela jakin dugu asteon. Hiru hamarkadotan 16 eta 29 urte bitarteko neska-mutilen %44 galdu ditugu. 200.000 gazte ere ez daude milioi bat biztanle baino gehiagoren artean. Horietatik %22,9, gainera, langabezian daude eta bizimodua ateratzera kanpora joatea aukera nagusietako bat da eurentzat. %56,3 gurasoekin bizi dira.

Araba eta Gipuzkoa barrenean hartzen baditugu, joera antzekoa dela ikusiko dugu: erdira jaitsi da EAEko gazte kopurua 2011 eta 2014 artean. 448.000 lagunetik 290.000ra, hain zuzen. Beldurgarria da langabezia tasa: %25,6koa. Gazte Kontsei-

luak, Gasteizko Legebiltzarrean politika eraginkorrak eskatzearekin batera, ohartarazi du langabezia tasa batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa dela gazteen artean eta arrakala hori handituz doala urtez urte, behin-behineko kontratu kopurua bezala.

Cebek Bizkaiko patronalaren biltzarren ekitaldian enpresak gazteei irekitzeko beharra aldarrikatu du Iñigo Urkullu lehendakariak. Politikariak bat datoz datuak hagitz kezkarriak direla erratean, belau-naldi berriak direlako etorkizuna. Baina, tamalez, bertze behin, hitz hutsetan gelditzen direla iruditzen zait. Gazteez solas egiten dute denbora osoan, baina gaztee-

kin solas egin gabe. Zenbakiak ematen dira maiz hauen giblean dauden bizitzeko pentsatu gabe.

2025era begira jarrita, Euskal Herri osoko eskulanaren proiektzioa egin du Gaindegiak: urte horretara bitartean 215.100 langilek hartuko dute erretreta eta, behategiaren hipotesiaren arabera, 392.200 pertsona gehiago egonen dira lanerako. Beraz, 177.100 enplegu sortu beharko dira datorren hamarkadan. Hortik berrikuntzan eta ikerketan saiatzeko premia, lan eta bizi antolaketa aldatzeaz gain. Hemen-dik 30 urtera datuek gazterik ez dugula erran ez dezaten, okerrrena dena, gu horretaz konturatu ere egin gabe. •